XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Agindua ematea, “Arabako Teknologia Parkea Zaintzeko Hirigintza Erakundean izandako aldaketa Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan jasotzeko. Aldaketa hauxe izan da: Administrazio Kontseiluaren lehendakariaren izendapen berria.

Bigarrena.- Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Behin betiko ebazpen honek ez du administrazio bidea agortzen. Interesdunek foru agindu hau argitaratu, edo jakinarazi, eta hurrengo egunetik aurrera hilabete izango dute Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izateko.

Gasteiz, 2013ko apirilaren 25a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

DISPONGO

Primero.- Ordenar la inscripción en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Álava de la modificación habida en la Entidad Urbanística de Conservación “Parque Tecnológico de Álava”, referente al nombramiento de nuevo Presidente del Consejo de Administración.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- La presente resolución es definitiva pero no pone fin a la vía administrativa. Los particulares interesados podrán interponer recurso de reposición ante la Diputada Foral de Medio Ambiente y Urbanismo en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso notificación.

Vitoria-Gasteiz, 25 de abril de 2013.– La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**2351**

**74/2013 FORU AGINDUA, apirilaren 23koa, Arabako Futbol Federazioaren estatutuak onartzen dituena.**

Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak dio, lehen xedapen iragankorrean, kirol federazioek egokitu egin behar dituztela euren estatutuak Dekretu horrek xedatutakora.

Dekretu horren 65.2 artikuluak dio Arabako kirol federazioen estatutuak Arabako Foru Aldundiko dagokion organoan aurkeztuko direla, onartzeko.

Arabako Foru Aldundian kirolaren arloa Euskara, Kultura eta Kirol Sailari dagokio.

2006ko abuztuaren 23ko 13791 idazkiaren bidez, Arabako Futbol Federazioak eskatu zuen 16/2006 Dekretura egokitutako estatutu berrien administrazio onarpena. Estatu berri horiek 2006ko abuztuaren 27ko bilkuran onartu zituen aparteko batzar orokorrak.

2009ko ekainaren 3ko 7254 idazkiaren bidez, Arabako Futbol Federazioari galdatu zitzaion estatutuetako zenbait manu indarrean zen araudira egoki zitzala.

2009ko ekainaren 24ko aparteko batzar orokorrean onartu zen zenbait artikulu aldatzea, Kirol Zerbitzuak eskatutakoarekin bat etorriz, haiek indarrean zegoen araudira egokitzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburuaren 2012ko urriaren 19ko agindu bidez, kendu egin zen Areto Futbola. Aurrerantzean futboleko adar bat izango da.

Horren ondorioz, dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Futbol Federazioaren Estatutuak onartzea. Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretura egokituta eta Foru Agindu honi erantsita daude.

Bigarrena. Ebazpen hau eta eranskina ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Arabako Futbol Federazioaren Estatutuak Foru Agindu honen bidez onartu izanaren kopia bidaltzea Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundeen Erregistrora.

Gasteiz, 2013ko apirilaren 23a.– Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

**Foru Aginduaren eranskina**

ARABAKO FUTBOL FEDERAZIOAREN ESTATUTUAK

### I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua-**

1. Arabako Futbol Federazioa (aurrerantzean, FAF-AFF) irabazteko xederik gabeko erakundea da. Nortasun juridikoa eta jarduteko

## DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

**2351**

**ORDEN FORAL 74/2013, de 23 de abril, que aprueba los Estatutos de la Federación Alavesa de Fútbol.**

El Decreto 16/2006,de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del Pais Vasco señala, en su disposición transitoria primera, que las federaciones deportivas adaptarán sus actuales Estatutos a lo dispuesto en el citado Decreto.

El articulo 65.2 del citado Decreto señala que los Estatutos de las federaciones territoriales deportivas alavesas se presentaran para su aprobación en el órgano competente de la Diputación Foral de Álava.

Correspondiendo la materia de deportes de la Diputación Foral de Álava al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

Con escrito número 13791 de fecha 23 de agosto de 2006, la Federación Alavesa de Fútbol solicita la aprobacion administrativa de los nuevos Estatutos adaptados al Decreto 16/2006, aprobados por la Asamblea General Extraordinaria celebrada el 27 de agosto de 2006.

Con escrito número 7254 de fecha 3 de junio de 2009 se requirio a la Federación Alavesa de Fútbol para que adecuara distintos preceptos estatutarios a la normativa vigente.

En la Asamblea General Extraordinaria de fecha 24 de junio de 2009, se aprobó la modificación de determinados artículos, para su adecuación a la normativa vigente de acuerdo con el requerimiento realizado por el Servicio de Deporte.

Por Orden de 19 de octubre de 2012 de la Consejera de Cultura del Gobierno Vasco se suprime la modalidad de Fútbol Sala que se incorpora como disciplina de la modalidad de Fútbol.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen.

DISPONGO

Primero. Aprobar los Estatutos de la la Federación Alavesa de Fútbol adaptados al Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco, que se incorporan como anexo a esta Orden Foral.

Segundo. Publicar la presente resolución y el anexo en el BOTHA.

Tercero. Remitir copia de la aprobación de los Estatutos de la Federación Alavesa de Fútbol aprobados por esta Orden Foral al Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 23 de abril de 2013.– Diputada de Euskera, Cultura y Deporte, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

**Anexo a la Orden Foral**

ESTATUTOS DE LA FEDERACIÓN ALAVESA DE FÚTBOL

### TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.-**

1. La Federación Alavesa de Fútbol, en lo sucesivo FAF-AFF, es la entidad privada sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica y

gaitasuna ditu, eta kirolariak, teknikariak, epaileak, kirol klubak eta elkarteak eta beste erakunde batzuk biltzen ditu bere baitan, Arabako Lurralde Historikoan futbol modalitatea praktikatzeko, sustatzeko eta antolatzeko.

Arabako Futbol Federazioak ondorengo diziplina hauek hartuko ditu beregan:

Futbola.

Areto futbola.

1. FAF-AFFk, berezko eskuduntzez gain, ordezkaritza bidez izaera administratiboko funtzio publikoak garatzen ditu; kasu horretan, Administrazio Publikoko eragile laguntzaile gisa lan egiten du.

**2. artikulua-**

FAF-AFF Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak eta gainerako garapeneko xedapenek, Estatutu eta Araudi espezifikoek eta berezko organoek behar bezala hartutako hitzarmenek arautzen dute.

**3. artikulua-**

Helbide honetan du egoitza Arabako Futbol Federazioak: Amadeo Garcia de Salazar plaza, z/g, (Kirol Federazioak), Gasteiz, 01007 PK (Araba).

**4. artikulua-**

1. FAF-AFFren oinarrizko jarduera esparrua Arabako Lurralde Historikoan dago, lurralde horretatik kanpo bidera ditzakeen jarduerei kalterik eragin gabe.

2. FAF-AFF Euskadiko Futbol Federazioaren baitan sartu beharko litzateke.

**5. artikulua-**

FAF-AFFk futbol kirol motari eta Areto futbola diziplinari dagokien ihardunera eta lehiaketa ofizialak sustatu kalifikatu baimendu, arautu eta antolatzen ditu lurralde eremuaren baitan.

**6. artikulua-**

FAF-AFFren betebeharrak dira ondorengoak:

a).- Federatuen kirol jarduera antolatzea Arabako Lurralde Historikoaren baitan.

b).- Kirol modalitateko eta bertan txertatuta dauden diziplinetako lehiaketa ofizialak eta jarduerak antolatzea Araban.

c).- Parte hartzeko eta lehiatzeko arauak ezartzea; betiere bere eremuaz gaindiko lurralde eremua duten federazioek ezarritako arauak betetzen baditu, hala dagokionean.

d).- Federazioaren lizentzien izapideak egitea, Euskadiko Federazioak eman ditzan, hark ezarritako baldintzen eta prozeduraren arabera.

e).- Bere jarduera garatzean sortutako kirol arazoak ezagutzea eta konpontzea; organo judizialen eta arbitraje-organoen eskumenari kalterik egin gabe.

f).- Bere arauak bete daitezen zaintzea, eta arau horien arabera duen diziplina ahalmena erabiltzea.

g).- Euskadiko Federazioarekin batera lan egitea kirolean debekatuta dauden substantziak, talde farmakologikoak eta arauz kanpoko metodoak erabil daitezen prebenitzen, kontrolatzen eta zigortzen, horretarako zehazten den araudiari jarraiki.

h).- Euskadiko Federazioarekin batera lan egitea beren jarduera garatzen duten teknikariak eta epaileak prestatzen.

i).- Bere baliabide ekonomikoen helburua zehaztea eta horiek esleitzea; beste erakunde batzuek bere jarduerarako transferitzen dizkion baliabideak kudeatzea, eta bere baliabide guztiak ongi erabiltzen direla kontrolatzea.

j).- Atxikitako kirol taldeei eta klubei ematen zaizkien diru laguntzen aplikazioa kontrolatzea eta esleitzea.

k).- Euskadiko administrazioei laguntzea kirola sustatzeko helburuetan, eta, bereziki, Legeak federazioei zuzenean ematen dizkien lankidetza eta aholkularitzako funtzioetan.

l).- Kirol Estatutuak eta Araudiak prestatzea.

capacidad de obrar, que reúne a deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces, clubes, agrupaciones deportivas y otras entidades para la práctica, promoción y organización de la modalidad de fútbol en el Territorio Histórico de Álava.

La Federación Alavesa de Fútbol tendrá integradas las siguientes disciplinas deportivas:

Fútbol.

Fútbol sala.

2. La FAF-AFF, además de sus propias atribuciones, ejerce por delegación funciones públicas de carácter administrativo, actuando en este caso como agente colaborador de la Administración Pública.

**Artículo 2.-**

La FAF-AFF, se rige por la Ley 14/1998, del Deporte del País Vasco; por el Decreto 16/2006, de 31 de Enero de las Federaciones Deportivas del País Vasco y demás disposiciones de desarrollo, por sus Estatutos y Reglamentos específicos y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos propios.

**Artículo 3.-**

La Federación Alavesa de Fútbol tiene su domicilio en la Plaza Amadeo García de Salazar s/n (Federaciones deportivas) de Vitoria-Gasteiz. Código Postal 01007 (Álava).

**Artículo 4.-**

1. El ámbito básico de actuación de la FAF-AFF, se extiende al Territorio Histórico de Álava, sin perjuicio de aquellas actividades que pueda realizar fuera de él.

2. La FAF-AFF, deberá integrarse en la Federación Vasca de Fútbol- Euskadiko Futbol Federakundea.

**Artículo 5.-**

La FAF-AFF, impulsa, califica, autoriza, ordena y organiza las actividades y competiciones oficiales de la modalidad deportiva de fútbol y disciplina deportiva de fútbol sala en su ámbito territorial.

**Artículo 6.-**

Son funciones de la FAF-AFF:

a).- Organizar la actividad deportiva de sus federados en el ámbito del Territorio Histórico de Álava.

b).- Organizar competiciones oficiales y actividades de la modalidad deportiva y disciplinas integradas, en el ámbito de Álava.

c).- Establecer sus propias normas de participación y competición, sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de las normas dictadas por federaciones de ámbito territorial superior.

d).- Tramitar las licencias federativas, para su expedición por la Federación Vasca, conforme a los requisitos y el procedimiento establecido por ésta.

e).- Conocer y resolver los conflictos deportivos que se originen en el desarrollo de su actividad, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales y arbitrales.

f).- Velar por el cumplimiento de sus normas reglamentarias y ejercer la potestad disciplinaria con arreglo a las mismas.

g).- Colaborar con la Federación Vasca en la prevención, control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a la normativa que al efecto se determine.

h).- Colaborar con la Federación Vasca en la formación de los técnicos y jueces que desarrollen su actividad en cualquiera de las modalidades o especialidades.

i).- Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que les transfieran otras entidades para el desarrollo de su actividad, y controlar la correcta aplicación de todos sus recursos.

j).- Asignar y controlar la aplicación de las subvenciones a los clubes y agrupaciones deportivas adscritas a la misma.

k).- Colaborar con las administraciones del País Vasco en el cumplimiento de sus fines de promoción deportiva y, en particular, en aquellas funciones de cooperación y asesoramiento que la ley atribuye directamente a las federaciones.

l).- Elaborar sus Estatutos y Reglamentos deportivos.

m).- Futbol kirol eta Areto futbola diziplina modalitatearen ordezkaritza izatea arlo autonomikoan eta estamentu guztien parte hartzea eremu horren baitako txapelketetan.

n).- Futbolean Arabako Lurralde Historikoan, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, eta ahal den neurrian, bermatzea.

ñ).- Eta, oro har, futboleko eta Areto futboleko modalitate eta espezialitate guztien jarduera sustatzeko eta hobetzeko komeni den guztia xedatzea.

**7. artikulua-**

1. Beste funtzio batzuez gain, FAF-AFFk izaera administratiboko funtzio publikoak egiten ditu; kasu honetan, gainera, dagokion Administrazioko eragile laguntzaile gisa lan egiten du.

2. Dagokion Administrazioko irizpideen, zaintzaren eta kontrolaren pean, FAF-AFFk izaera administratiboko ondorengo funtzio publikoak hartzen ditu bere gain ordezkaritza bidez:

a).- Lehiaketa ofizialen kalifikazioa, antolamendua, antolaketa eta baimena.

b).- Arabako futbolaren eta Areto futbolaren ordezkaritza lanak arautzea parte hartu behar duen txapelketetan.

c).- Federazioaren lizentzien izapideak egitea.

d).- Kirola egiterakoan, indarkeria prebenitzea, kontrolatzea eta zigortzea.

e).- Kirol diziplinako ahalmena izatea.

f).- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen erabakiak betetzea.

g).- Estatutuak eta araudiak onartzea.

h).- Administrazio publikoarekin batera lan egitea eta parte hartzea kirol programak garatzen, batez ere maila altuko kirolarientzako programetan, eskolako kiroleko programetan, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko programetan eta hark antolatzen dituen interes orokorreko programetan.

i).- Federazioko hauteskunde prozesuen kontrola.

3. FAF-AFFk eskuordetutako funtzio publikoak betetzerakoan emandako jarduerak administrazio prozedura erkidearen arau erregulatzaileen printzipio inspiratzaileetara egokitu beharko dira.

4. Aurreko atalean agertzen diren jardueren aurkako errekurtsoa jarri ahalko da Arabako Foru Aldundiko dagokion organoaren aurrean; haren ebazpenak bide administratiboa agortuko du. Helegite horrek 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legean gora jotzeko errekurtsorako ezarritako erregimena izango du, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari horren ezagutza dagokion errekurtsoetan izan ezik.

5. Funtzio publikoak behar bezala bete ahal izateko, eskuduntza duen kirol administrazioak FAF-AFFri eskuragarri duen aholkularitza teknikoa eskainiko dio.

**8. artikulua-**

1. Inola ere ezingo ditu FAF-AFFk eskuordetu hari eman zaizkion funtzio publikoak, dagokion administrazioko baimenik gabe. Baimena beren izaera dela eta, eskuordetu daitezkeen funtzio horiekin lotuta soilik eman ahalko da.

2. FAF-AFFk aurretik aipatutako baimen administratiboa duela, funtzio publiko horiek egiteko ahalmena eskuordetu ahalko die FAF-AFF ordezkatzen duten elkarteei.

**9. artikulua-**

FAF-AFFren baitan, ez da baimenduko inolako bazterkeriarik arraza, erlijioa, iritziak eta sinesmenak, edo beste edozein egoera pertsonal edo sozial dela eta.

## II. TITULUA

## FEDERAZIOEN LIZENTZIAK ETA TXAPELKETA OFIZIALAK

**10. artikulua-**

1. Federazioaren lizentzia izaera pertsonala eta transferiezina duen dokumentua da; titularrari Federazioko kide izaera ematen dio

m).- Ostentar la representación de la modalidad del fútbol y disciplina deportiva de fútbol sala en el ámbito autonómico e instrumentar la participación de todos los estamentos en competiciones de dicho ámbito.

n).- Promover y, en la medida de lo posible garantizar, la igualdad de mujeres y hombres en la práctica deportiva del fútbol en el Territorio Histórico de Álava.

ñ).- Y, en general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora de la práctica del fútbol y fútbol sala en sus distintas modalidades o especialidades.

**Artículo 7.-**

1. Además de otras funciones, la FAF-AFF ejerce funciones públicas de carácter administrativo, actuando en este caso como agente colaborador de la Administración correspondiente.

2. Bajo los criterios, tutela y control de la Administración correspondiente, la FAF-AFF, ejerce, por delegación, las siguientes funciones públicas de carácter administrativo:

a).- La calificación, ordenación, organización y autorización de las competiciones oficiales.

b).- La ordenación de la representación del fútbol y fútbol sala alavés en las competiciones en las que participe.

c).- La tramitación de las licencias federativas.

d).- La prevención, control y sanción de la violencia en la práctica del deporte.

e).- El ejercicio de la potestad disciplinaria deportiva.

f).- La ejecución de las resoluciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva.

g).- La aprobación de sus estatutos y reglamentos.

h).- La participación y colaboración con la Administración pública en el desarrollo de sus programas deportivos, en especial en los programas para deportistas de alto nivel, en los programas de deporte escolar, en los programas de promoción de igualdad de hombres y mujeres y en aquellos programas de interés general que organice aquella.

i).- El control de los procesos electorales federativos.

3. Los actos dictados por la FAF-AFF, en el ejercicio de las funciones públicas delegadas se ajustarán a los principios inspiradores de las normas reguladoras del procedimiento administrativo común.

4. Los actos señalados en el apartado anterior son susceptibles de recurso ante el órgano correspondiente de la Diputación Foral de Álava, cuya resolución agotará la vía administrativa. Tal recurso tendrá el régimen establecido para el recurso de alzada en la Ley 30/1992, de 26 de Noviembre, a excepción de aquellos recursos cuyo conocimiento corresponde al Comité Vasco de Justicia Deportiva.

5. Para el adecuado ejercicio de las funciones públicas, la Administración deportiva competente ofrecerá a la FAF-AFF, el asesoramiento técnico de que disponga.

**Artículo 8.-**

1. En ningún caso la FAF-AFF podrá delegar, sin la autorización administrativa correspondiente, el ejercicio de las funciones públicas que le han sido delegadas. La autorización solo podrá concederse en relación con aquellas funciones que, por su propia naturaleza, sean susceptibles de delegación.

2. La FAF-AFF, podrá delegar, con la citada autorización administrativa previa, dicho ejercicio de funciones públicas en las asociaciones representativas de la FAF-AFF.

**Artículo 9.-**

En el seno de la FAF-AFF, no se permitirá discriminación alguna por razón de raza, religión, opiniones y creencias o cualquier otra circunstancia personal o social.

## TÍTULO II

## DE LAS LICENCIAS FEDERATIVAS Y DE LAS COMPETICIONES OFICIALES

**Artículo 10.-**

1. La licencia federativa es el documento de carácter personal e intransferible que otorga a su titular la condición de miembro de la

eta futbola zein areto futbola arautzen duten legeen arabera, txapelketa ofizialetan parte hartzeko gaitasuna ematen dio modalitate edo espezialitate ugarietan.

2. Federazioaren lizentzia bakarra izango da eta, horri esker, titularrak atxikipen bikoitza izango du: FAF-AFFkoa eta Euskadiko Futbol Federazioarena.

3. Federazioaren lizentzia Euskadiko Futbol Federazioak emango du, FAF-AFFk aurretik izapidetuta eta horretarako zehaztutako edukiarekin egindako errekonozimendu medikoa egin ostean. Lizentzia horrek titularrari antolatutako lehiaketetan parte hartzeko gaitasuna emango dio.

**11. artikulua-**

1. FAF-AFFk federatuetatik borondatezko izaera izango duen kuota gehigarria jaso ahalko du haren zerbitzuak eta jarduerak finantzatu ahal izateko

2. FAF-AFF da federazioaren lizentzia izapidetzeko eskumena duen erakundea eta funtzio publiko horrek, besteak beste, ondorengo gaitasunak biltzen ditu:

a).- Federatu nahi dutenei federazioaren lizentzien betebeharren eta eraginen inguruko berri ematea.

b).- Federazioko afiliazioa egiteko beharrezko dokumentuak eta datuak biltzea.

c).- Lizentzien guztizko zenbatekoak kobratzea eta zenbateko hori ordaintzea Euskadiko Kirol Federazioen Dekretuan eta garapeneko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

3. Euskadiko Futbol Federazioak banatuko du lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia Batzar Orokorrak adostutako baldintzen arabera. Zenbateko garbi hori zenbateko gordinari Euskadiko Kirol Federazioen Dekretuko 25. artikuluko a) eta d) hizkietan ezarritako zenbatekoa murriztetik lortutakoa izango da. FAF-AFFk jaso beharreko zenbatekoa inola ere ezingo da izan lehen aipatutako zenbateko garbiaren ehuneko 35 baino gutxiago.

**12. artikulua-**

Lizentzien formatua eta edukia Euskadiko Futbol Federazioak onartuko ditu eta horren inguruan Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 25. eta hurrengo artikuluek xedatutakoaren arabera egokituko da.

**13. artikulua-**

1. FAF-AFF da lehiaketa ofizialak baimentzeko, kalifikatzeko, arautzeko edo antolatzeko, eta dagozkion titulu ofizialak emateko gaitasuna duen erakunde bakarra.

2. Txapelketa ofizial izaera izango dute FAF-AFFk horrela kalifikatu dituen guztiak eta, edonola ere, txapelketen egutegi ofizialean sartuta dauden guztiak.

3. Ezingo dira titulu ofizialak esleitu ez badira txapelketa ofizial bateko emaitza.

**14. artikulua-**

1. FAF-AFFk egutegi espezifikoa izan beharko du berezko lehiaketa ofizialetarako.

2. Txapelketa horietan, federazioaren lizentziaren jabe direnek soilik parte hartu ahalko dute eskubide eta betebehar guztiekin.

3. FAF-AFFk bere funtzioak koordinatu beharko ditu kirol lehiaketen piramide itxurako egitura egokia bermatuz.

**III. TITULUA**

FEDERAZIOAREN ORGANOAK

**I. Kapitulua**

Xedapen Orokorrak

**15. artikulua-**

1. FAF-AFFn, gutxienez, ondorengo organoak izango dira:
A).- Gobernukoak:
1.- Batzar Orokorra.
B).- Ordezkaritzakoak:
1.- Presidentea.

Federación y le habilita para participar en las competiciones oficiales conforme a las reglas que rigen el deporte del fútbol y fútbol sala en sus diferentes modalidades o especialidades.

2. La licencia federativa será única y supondrá la doble adscripción de su titular a FAF-AFF, y a la Federación Vasca de Fútbol.

3. La licencia federativa será emitida por la Federación Vasca de Fútbol, previa tramitación por la FAF-AFF, y realización de un reconocimiento médico con el contenido que al efecto se determine y habilitará a su titular para participar en las competiciones que organicen.

**Artículo 11.-**

1. La FAF-AFF, podrá percibir de sus federados una cuota adicional de carácter voluntario para la financiación de los servicios y actividades de la misma.

2. La FAF-AFF, es la entidad competente para tramitar la licencia federativa y tal función pública comprende, entre otras, las siguientes facultades:

a).- Informar a quienes deseen federarse sobre los requisitos y efectos de las licencias federativas.

b).- Recoger los documentos y datos necesarios para la afiliación federativa.

c).- Cobrar el importe total de las licencias y liquidar dicho importe con arreglo a lo establecido en el Decreto de Federaciones Deportivas del País Vasco y disposiciones de desarrollo.

3. La Federación Vasca de Fútbol, repartirá el importe neto de cada licencia, en los términos aprobados por su Asamblea General. Dicho importe neto será el resultante de minorar al importe bruto los importes establecidos en las letras a) y d) del apartado 3 del artículo 25 del Decreto de Federaciones Deportivas del País Vasco. En ningún caso, la cantidad a percibir por la FAF-AFF, podrá ser inferior al 35 por ciento del importe neto antes citado.

**Artículo 12.-**

El formato y contenido de las licencias será aprobado por la Federación Vasca de Fútbol y se ajustará a los requisitos que al efecto disponen los artículos 25 y ss. del Decreto 16/2006, de 31 de Enero de las Federaciones Deportivas del País Vasco.

**Artículo 13.-**

1. La FAF-AFF es la única entidad facultada para organizar, calificar, ordenar o autorizar competiciones oficiales y otorgar los correspondientes títulos oficiales.

2. Tendrán la consideración de competiciones oficiales aquellas que sean calificadas como tales por la FAF-AFF y, en todo caso, las incluidas en el calendario oficial de competiciones.

3. No podrán concederse títulos oficiales si no es como resultado de una competición oficial.

**Artículo 14.-**

1. La FAF-AFF deberá disponer de un calendario específico para sus competiciones oficiales propias.

2. En dichas competiciones sólo podrán participar con todos los derechos y obligaciones quienes sean titulares de la licencia federativa.

3. La FAF-AFF deberá coordinar sus funciones garantizando una correcta estructura piramidal de las competiciones deportivas.

**TÍTULO III**

DE LOS ÓRGANOS DE LA FEDERACIÓN

**Capítulo I**

Disposiciones Generales

**Artículo 15.-**

1. En la FAF-AFF, existirán como mínimo los órganos siguientes:
A).- De gobierno:
1.- La Asamblea General.
B).- De representación:
1.- El Presidente.

C).- Administraziokoak:
1.- Zuzendaritza Batzordea.
D).- Barne Erregimenekoak:
1.- Idazkaritza Orokorra.
2.- Diruzaintza.
3.- Zuzendaritza Teknikoa-Kirol Zuzendaritza.
E).- Teknikariak:
1.- Entrenatzaileen Lurralde Batzordea.
2.- Arbitroen Lurralde Batzordea.
3.- Kirol Teknikarien Eskola.
F).- Kirol Justiziakoak:
1.- Diziplina Batzordea.
2.- Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordea.
G).- Areto Futboleko Lurraldeko Batzordea

2. Organo hautetsiak izango dira presidentea, Zuzendaritza Batzordea eta Batzar Orokorra; gainerako organoak FAF-AFFren presidenteak izendatu eta baliogabetu beharko ditu libreki.

3. Aurreko atalean azaldutakoaren salbuespen gisa, Kirol Teknikarien Arabako Eskolako zuzendaria Euskadiko Futbol Federazioak izendatuko du, FAF-AFFren presidenteak hala proposatuta.

**16. artikulua-**

FAF-AFFko edozein organotako kide izateko baldintza orokorrak ondorengoak dira:

1).- Adin nagusikoa izatea.

2).- Administrazio egoitza Araban izatea. Ezohiko egoeretan, Batzar Orokorrak baldintza hori dispentsa dezake.

3).- Karguak edo funtzioak betetzeko gaitasuna kentzen duen diziplinazko zigor irmorik bete behar ez izatea.

4).- Epai judizial irmoak kargu publikoak betetzeko gaitasuna baliogabetzen duen zigorrik ez izatea.

5).- Epai judizial irmoak ezgai deklaratu ez izana.

**17. artikulua-**

1. Eurek hautatuta parte hartzen duten federazio organoetako kide guztiek lau urteko denboran gauzatuko dute beren agintaldia, dagokion denbora olinpikoarekin bat etorriz, eta edozein kasutan, Estatutu hauetan ezarritakoarekin bat etorriz berriro aukeratu ahal izango dira.

2. Edozein gorabehera dela eta, agintaldia burutuko ez balute, bete gabeko plazak dituztenek beteko dute kargua ordezkatuei betetzeko geratzen zaien epealdi berean; azken horiek ezingo dute hautapen berrira aurkeztu aukeratuak izan diren epe olinpikoa igaro arte.

**18. artikulua-**

1. FAF-AFFko organoetako kideek kargua ondorengo arrazoiengatik etengo dute:

a).- Agintaldia amaitu izanagatik.

b).- Dimisioagatik.

c).- Beren betebeharra gauzatzea eragozten dien gaitasunik eza.

d).- Hamaseigarren artikuluak adierazten duen ezin hautagarritasuneko kausaren bat betetzea.

e).- Enkaitzea, dagokion hipotesietan, kargu hautetsiak ez direlako.

f).- Estatutuetan edo legez ezarritakoetan bateraezintasuna gertatzeagatik bat-batean.

2. FAF-AFFren presidentearen eta Zuzendaritza Batzordearen kasuetan, zentsura botoarengatik.

**19. artikulua-**

Beste gauzaren bat xedatu ezean, Federazioko organoek hartutako erabakiak eta hitzarmenak betearazleak izango dira eta interesdunei jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita izango dute eragina.

**20. artikulua-**

1. Federazioko organoek hartu dituzten erabaki guztien akta egin behar du idazkariak. Aktan ondorengoak jaso beharko dira, gutxienez: bertaratutako pertsonen izena, bilera non eta noiz egin den; eztabaidatu diren alderdi nagusiak; bozketa nola egin den eta haren emaitza, eta erabakien edukia.

C).- De administración:
1.- La Junta Directiva.
D).- De régimen interno:
1.- La Secretaría General.
2.- La Tesorería.
3.- La Dirección Técnico-Deportiva.
E).- Técnicos:
1.- El Comité Territorial de Entrenadores.
2.- El Comité Territorial de Arbitros.
3.- La Escuela de Técnicos Deportivos.
F).- De Justicia Deportiva:
1.- El Comité Disciplinario.
2.- El Comité Jurisdiccional y de Conciliación.
G).- El Comité Territorial de Fútbol sala.

2. Serán órganos electivos el Presidente, la Junta Directiva y la Asamblea General, los demás órganos serán designados y revocados, libremente, por el Presidente de la FAF-AFF.

3. Como excepción a lo señalado en el apartado anterior, el Director de la Escuela de Técnicos Deportivos del Centro de Álava, será nombrado por el Presidente de la Federación Vasca de Fútbol a propuesta del Presidente de la FAF-AFF.

**Artículo 16.-**

Los requisitos generales para ser miembro de cualquier órgano de la FAF-AFF, son los siguientes:

1. Haber alcanzado la mayoría de edad.

2. Poseer la vecindad administrativa en Álava. En circunstancias excepcionales la Asamblea General podrá dispensar este requisito.

3. No estar sujeto a sanción disciplinaria firme que conlleve inhabilitación para el desempeño de cargos o funciones.

4. No haber sido condenado mediante sentencia judicial firme que conlleve la inhabilitación para ostentar cargo público.

5. No haber sido declarado incapaz por sentencia judicial firme.

**Artículo 17.-**

1. Todos los miembros de los órganos federativos que formen parte de ellos por elección, desempeñarán su mandato por tiempo de cuatro años, coincidentes con el período olímpico de que se trate y podrán, en todo caso, ser reelegidos conforme a lo dispuesto en los presentes Estatutos.

2. En el supuesto en que, por cualquier circunstancia, no consumaran aquel período de mandato, quienes ocupen las vacantes ejercerán el cargo por tiempo igual al que restase por cumplir a los sustituidos, los cuales no podrán presentarse a una nueva elección hasta que transcurra el período olímpico para el que fueron elegidos.

**Artículo 18.-**

1. Los miembros de los órganos de la FAF-AFF, cesarán por:

a).- Expiración del período de mandato.

b).- Dimisión.

c).- Incapacidad que les impida desempeñar su cometido.

d).- Incurrir en alguna de las causas de inelegibilidad que enumera el artículo dieciséis.

e).- Remoción en los supuestos en que proceda, por no tratarse de cargos electivos.

f).- Incompatibilidad sobrevenida de las establecidas legal o estatutariamente.

2. Tratándose del Presidente de la FAF-AFF y de la Junta Directiva lo será también el voto de censura.

**Artículo 19.-**

No disponiendo otra cosa, las decisiones y acuerdos adoptados por los órganos de la Federación serán ejecutivos y surtirán efecto desde el día siguiente al de su notificación a los interesados.

**Artículo 20.-**

1. De todos los acuerdos adoptados por los órganos federativos se levantará acta por el Secretario, que contendrá con carácter mínimo, el nombre de las personas asistentes, las circunstancias de lugar y tiempo en que la reunión se haya celebrado, los puntos principales de deliberación, la forma y el resultado de la votación y el contenido de los acuerdos.

2. Onartutako erabakiaren aurkako botoek kide anitzeko organoen erabakietatik ondoriozta daitezkeen erantzukizunetik salbuetsi dezakete, betiere arrazoirik egon bada.

**II. Kapitulua**

Batzar Orokorra

**21. artikulua-**

Batzar Orokorra federazioaren gobernu organo nagusia da, eta ondorengo funtzioak bete beharko ditu:

a).- Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzea.

b).- Federazioko kontuak eta aurrekontuak onestea.

c).- Federazioa desegitea erabakitzea.

d).- Presidentearen eta Zuzendaritza Batzordearen aurkako zentsura mozioa onartzea.

e).- Lehiaketen egutegi ofiziala onestea.

f).- Federazioaren jarduera-plana onestea.

g).- Federazioko Estatutuak eta Araudiak onartzea eta aldatzea.

h).- Ondasun higiezinak izatea, besterentzea eta zergapetzea, maileguak hitzartzea eta zorraren tituluak edo ondarearen parte aliquota jaulkitzea.

i).- Beren garrantzi handia dela eta, Batzar Orokorraren onespena behar duten guztiak.

**22. artikulua-**

1. Batzar Orokorra lau urtez behin aukeratuko dute sufragio askearen, zuzenaren, berdinaren eta sekretuaren bidez, joko olinpikoak egingo dituzten urteekin bat eginez.

2. Salbuespen gisa, eta administrazioak berariazko baimena eman eta gero, hauteskundeen prozesuak atzeratu edo aurreratu daitezke, hauteskundeak hasteko ezarrita zeuden egunetan ezinezkoa bada.

*I. Sekzioa - Batzar Orokorraren Osaera*

**23. artikulua-**

Batzar Orokorra 100 kidek osatuko dute; kide horiek ondorengo proportzioaren araberakoak izango dira eta klubetako estamentuetakoak, kirol taldeetakoak, kirolarienak, teknikarienak eta epaileenak izango dira:

a).- Atxikitako kirol taldeentzako eta klubetako estamentuentzako ordezkaritza Batzordeko guztizko kideen ehuneko 80koa izango da.

b).- Atxikitako kirolarien estamentuentzako ordezkaritza Batzordeko guztizko kideen ehuneko 5ekoa izango da.

c).- Atxikitako teknikarien eta epaileen estamentuentzako ordezkaritza Batzordeko guztizko kideen ehuneko 15ekoa izango da, estamentu horietariko bakoitzak hauteskundeen deialdia egin den unean duen erroldako lizentzia kopuruaren proportzio berean.

*II. Sekzioa – Batzar Orokorreko Kideen Aukeraketa*

**24. artikulua-**

Kirol klub eta elkarteetako estamentuak Batzar Orokorrean edukiko dituen ordezkariak kirol klub eta elkarteen ordezkariek hautatuko dituzte beren kideen artetik, baina baldintza hauek beteta: EAEko Kirol Erakundeen Erroldan izen emanda egotea, hauteskundeak egiten diren denboraldian kirol jarduera nabarmena egin izana eta aurreko denboraldian eduki izana, lurralde federazio horri atxikita egotea eta Hauteskunde Arautegiaren kasuan kasuko artikuluan jasotakoa betetzea.

**25. artikulua-**

1. Batzar Orokorra hautatzen denetik lau urte igaro baino lehen, Federazioko administrazio organoak hauteskunde batzordearen bilera deituko du, hauteskunde prozesuari ekin diezaion.

2. Ezinezkoa bada, gutxienez Federazioko Batzar Orokorreko kide guztien ehuneko 5 ordezkatzen duen edozein taldek hauteskunde batzordea deitu ahal izango du.

**26. artikulua-**

Batzar Orokorrean, kirolarien estamentuetako ordezkariak baimena indarrean duten hemezortzi urtez gorako kirolarien eta

2. Los votos contrarios al acuerdo adoptado, siempre que sean motivados, eximirán de la responsabilidad que pudiera derivarse de las decisiones de los órganos colegiados.

**Capítulo II**

De la Asamblea General

**Artículo 21.-**

La Asamblea General es el máximo órgano de gobierno de la Federación y tendrá encomendadas las siguientes funciones:

a).- Elegir Presidente y Junta Directiva.

b).- Aprobar las cuentas y presupuestos de la Federación.

c).- Acordar la disolución de la Federación.

d).- Aprobar la moción de censura al Presidente y a la Junta Directiva.

e).- Aprobar el calendario oficial de competiciones.

f).- Aprobar el plan de actuación de la Federación.

g).- Aprobar y modificar los Estatutos y Reglamentos federativos.

h).- Disponer, enajenar y gravar bienes inmuebles, concertar préstamos y emitir títulos de deuda o de parte alícuota patrimonial.

i).- Todas aquellas que precisen, por su gran transcendencia, la aprobación de la Asamblea General.

**Artículo 22.-**

1. La Asamblea General será elegida cada cuatro años mediante sufragio libre, directo, igual y secreto, coincidiendo con los años de celebración de los juegos olímpicos.

2. Excepcionalmente, y previa autorización administrativa expresa, el inicio de los procesos electorales podrá retrasarse o adelantarse, cuando en las fechas del inicio previsto no resulte posible.

*Sección I - De la Composición de la Asamblea General*

**Artículo 23.-**

La Asamblea General está integrada por 100 miembros, de los estamentos de clubes, agrupaciones deportivas, deportistas, técnicos y jueces en la siguiente proporción:

a).- Una representación para el estamento de clubes y agrupaciones deportivas adscritos fijada en el 80 por ciento del total de miembros de la Asamblea.

b).- Una representación para el estamento de deportistas adscritos fijada en el 5 por ciento del total de miembros de la Asamblea.

c).- Una representación para los estamentos de técnicos y de jueces adscritos fijada en el 15 por ciento del total de miembros de la Asamblea, en proporción al número de licencias, incluidas en el censo, que cada uno de estos estamentos tenga en el momento de efectuarse la convocatoria electoral.

*Sección II - De la elección de miembros de la Asamblea General*

**Artículo 24.-**

Los representantes del estamento de clubes y agrupaciones deportivas en la Asamblea General serán elegidos por y entre los representantes de los clubes y agrupaciones deportivas que, figurando inscritos en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco, hayan realizado alguna actividad deportiva significativa durante la temporada de celebración de elecciones y que la hayan tenido en la temporada anterior y que estén adscritos a esta federación territorial y cumplan lo señalado en el artículo correspondiente del Reglamento Electoral.

**Artículo 25.-**

1. Antes de que transcurran cuatro años desde la elección de la Asamblea General, el órgano de administración de la Federación procederá a convocar una reunión de la junta electoral para que dé inicio al proceso electoral.

2. No siendo ello posible, cualquier colectivo de miembros de la Asamblea General de la Federación que represente al menos un 5 por ciento del total de componentes de la misma, podrá convocar a la junta electoral.

**Artículo 26.-**

Los representantes del estamento de los deportistas en la Asamblea General se elegirán entre deportistas mayores de dieciocho

aurreko denboraldian eduki zutenen artean aukeratuko dira, hauteskundeak egiten direnerako. Lehen azaldutako baldintzak betetzen dituzten hamasei urtetik gorako kirolariek aukeratuko dituzte ordezkariak.

**27. artikulua-**

Estamentu teknikoetako eta epaileetako ordezkariak hauteskundeak egiten diren urterako baimena dutenen eta justu aurreko urtean ere eduki zutenen artean aukeratuko dira, baimenaren kategoria edozein izanik ere.

*III. Sekzioa - Batzar Orokorraren Funtzionamendua*

**28. artikulua-**

1. FAF-AFFko Batzar Orokorra ohiko eta ezohiko saioetan biltzean da.

2. Batzar Orokorraren ohiko bilera urtean behin izango da gutxienez, urteko lehen seihilekoan. Xedea hauxe izango da:

a).- Kontuen eta aurrekontuaren egoera onestea.

b).- Jarduera plana onestea.

c).- Lehiaketen egutegi ofiziala onestea.

3. Era berean, Batzorde arruntaren eskuduntzakoa izango da beste edozein gai eta beste batzuk, ondorengo atalean aurrez ikusitakoa salbu:

a).- Beste kirol erakundeekin, Federazioekin, Instituzioekin eta Korporazio publikoekin Federazioaren trebeziari eragiten diren akordioak eta hitzarmenak onartzea.

b).- Berezko ondasun higiezinen besterentzea eta karga, mailegu ituna eta igorgarriak diren tituluen, akzioen edo obligazioen igorpena.

c).- Federazioaren alde egiten den mota guztietako liberaltasuna, dohaintzak eta diru-laguntzak onartzea, horiek zerga baldintzei edo kargei atxikita egongo balira.

4. Batzar Orokorrak ohiz kanpoko bilerak antolatuko ditu ondorengo gaiez aritzeko:

a).- Sufragio aske eta berdin, zuzeneko eta sekretuaren bidez, presidentea eta FAF-AFFko Zuzendaritza Batzordea aukeratzea.

b).- Federazioko estatutuak eta araudiak onartzea eta aldatzea.

c).- Presidentearen eta Zuzendaritza Batzordearen aurkako zentsura mozioa onartzea.

d).- Federazioa desegitea.

**29. artikulua-**

1. Ohiko eta ezohiko batzarrak biltzeko deia egitea, ofizioz, FAF-AFFren presidenteari dagokio; bestela, Zuzendaritza Batzordeak edo, gutxienez, Batzar Orokorreko kideen ehuneko 5ek eskatzen duenean egingo da. Hori ezin bada egin, edo presidenteak ez badu betetzen Batzar Orokorra deitzeko betebeharra, Zuzendaritza Batzordeak edo, gutxienez, kideen ehuneko 5 ordezkatzen duen batzarkide talde batek egin ahal izango du deialdia.

2. Presidenteak Batzarraren deialdia egin beharko du dagokion eskaera egin eta, gehienez, 15 eguneko epean, salbu estatuetako 44.3 artikuluko kasuetan.

**30. artikulua-**

Batzar Orokorrerako deialdia federazioaren presidenteak egingo die batzarreko kideei, idatziz (balio du erregistratuta geratzen den edozein moduk: faxa, posta elektronikoa…) batzarra izan baino 15 egun lehenago gutxienez, jarrita bertan gai zerrenda, non, zein egun eta ordutan izango den, baita bigarren deialdirako deia ere, lehena egiten denetik ordu erdira.

Federazioko egoitzako iragarki taulan jarriko da deialdia.

**31. artikulua-**

Batzordeko kideek presidenteari eska diezaiokete interesgarriak iruditzen zaizkien gaiak gai zerrendan sartzea, betiere, eskaera, gutxienez, Batzarreko kideen ehuneko 15ek hala proposatuta egiten

años que tengan licencia en vigor para la temporada de celebración de las elecciones y que la hayan tenido también en la temporada inmediatamente anterior. Dicha representación será elegida por los deportistas mayores de dieciséis años que cumplan las condiciones antes señaladas.

**Artículo 27.-**

Los representantes de los estamentos de técnicos y de jueces serán elegidos por y entre los que tengan licencia en vigor para el año de celebración de las elecciones y la hayan tenido también en el año inmediatamente anterior, cualquiera que sea la categoría de la licencia.

*Sección III - Del funcionamiento de la Asamblea General*

**Artículo 28.-**

1. La Asamblea General de la FAF-AFF se reúne en sesiones ordinarias y extraordinarias.

2. La Asamblea General se reunirá en sesión ordinaria, al menos una vez al año, dentro del primer semestre para:

a).- Aprobar el estado de cuentas y presupuesto.

b).- Aprobar el plan de actuación.

c).- Aprobar el calendario oficial de competiciones.

3. Será, igualmente, competencia de la Asamblea ordinaria, cualquier otro asunto, salvo lo previsto en el apartado siguiente y además:

a).- Aprobar los acuerdos y convenios con otras entidades deportivas, Federaciones, Instituciones y Corporaciones públicas que afecten al desenvolvimiento deportivo de la Federación.

b).- La enajenación y gravamen de bienes inmuebles propios, concierto de préstamos y emisión de títulos transmisibles, acciones u obligaciones.

c).- La aceptación de donaciones, subvenciones y cualquier otro tipo de liberalidad que se realice a favor de la Federación, si las mismas estuviesen sujetas a condición o cargas gravosas.

4. La Asamblea General se reunirá en sesión extraordinaria para tratar los siguientes asuntos:

a).- Elegir mediante sufragio libre e igual, directo y secreto al Presidente y Junta Directiva de la FAF-AFF.

b).- Aprobar y modificar los estatutos y reglamentos de la Federación.

c).- Aprobar la moción de censura al Presidente y Junta Directiva.

d).- Disolución de la Federación.

**Artículo 29.-**

1. La convocatoria de las asambleas generales ordinarias o extraordinarias corresponde al Presidente de la FAF-AFF de oficio, a petición de la Junta Directiva o, al menos, del 5 por ciento de componentes de la Asamblea General. Si ello no fuera posible o el Presidente no cumpliera con su obligación de convocar la Asamblea General, la Junta Directiva o un colectivo de miembros de la asamblea que represente, al menos al 5 por ciento de sus componentes podrá realizar la convocatoria.

2. El Presidente deberá realizar la convocatoria de la Asamblea, en el plazo máximo de 15 días a partir de que se formule la correspondiente solicitud, excepto para el supuesto contemplado en el artículo 44.3 de estos estatutos.

**Artículo 30.-**

La convocatoria de la Asamblea General será efectuada por el Presidente de la Federación a los miembros de la Asamblea por escrito, siendo válida por fax, correo electrónico u otro medio análogo que permita su registro, con una antelación mínima de 15 días a la fecha de su celebración, debiendo expresar el orden del día, lugar, día y hora de la reunión, así como la citación en segunda convocatoria, que tendrá lugar media hora después de la primera.

La convocatoria será expuesta en el tablón de anuncios de la sede de la Federación.

**Artículo 31.-**

Los miembros de la Asamblea podrán solicitar del Presidente la inclusión en el orden del día de aquellos asuntos que consideren de interés, siempre que la solicitud se haga a propuesta, como mínimo, de un 15

bada eta Batzarra ospatu baino hamar egun lehenago proposatzen badira.

**32. artikulua-**

1. Batzar Orokorra lehen deialdian osatzeko, kideen erdiek eta beste batek elkartu beharko dute. Bigarren deialdian, berriz, kideen kopurua edozein dela ere osatuko da batzarra.

2. Batzar Orokorrean ezingo da botoa eskuordetu.

**33. artikulua-**

1. Estatutu hauen 28.4.a) artikuluan jasotako erabakiak adosteko izan ezik (horietan botoa sekretuan eta idatziz emango da), Batzar Orokorrean egindako gainerako bozketa guztietan, aipatu bezala, ahoz edo eskua altxatuz egingo dira, presidenteak erabakitakoaren arabera.

2. Batzar Orokorraren erabakiak bertaratzen diren kideen gehiengo soilaz hartuko dira eta berdinketa egonez gero, batzordeburuak erabakiko du, lege edo estatutuetako xedapenek gehiengo kualifikatuak aurreikusten dituztenetan izan ezik.

3. Batzarra egin eta hirurogei eguneko epean, Batzarreko Idazkariak, hau da, Federaziokoak, bilkuraren akta egingo du eta kopia bana bidaliko die batzarkideei.

**III. Kapitulua**

Presidentea

**34. artikulua-**

1. Federazioaren presidentea Federazioaren legezko ordezkaria izango da. Batzar Orokorrak eta Zuzendaritza Batzordeak harturiko erabakiak gauzatuko ditu. Batzorde bi horien bilkurak zuzenduko ditu eta berdinketa denean kalitate botoarekin erabakiko du.

2. Presidentea lau urtetik behin aukeratuko du Batzar Orokorrak bere kideen artean, sufragio libre, zuzen, berdin eta sekretu bidez. Horretarako bilkura bat egingo da, legez arauturiko prozeduraren arabera. Hautagai bakarra baldin badago, ez da bozketarik izango.

3. Aukeraturiko hautagaitzaren burua izango da Federazioaren presidente.

4. Presidentea berrautatua izan daiteke, baina agintaldien denbora-muga jarraian hamar agintaldikoa izango da. Jarraian izandako hamar agintaldiak agortu ondoren ezingo da berriro presidente hautatu, gutxienez lau urte igaro arte.

Hala ere, adierazitako hamar agintaldiak bete eta gero beste hautagairik ez izatekotan, salbuespen moduan haren berrautaketa onartuko da.

5. Agintean dagoen denboran, presidenteak ezingo du kirol bereko edo beste kirol izaera bateko beste federazio batean izaera bereko karguan egon. Gainera ez da bateragarria izango, futbolari, epaile eta entrenatzaile lanekin. Dena den, lizentzia baldin badu ez zaio kenduko, baina bertan behera utziko zaio FAF-AFFren presidente kargua utzi arte.

6. Gorabeheraren batengatik presidenteak agintaldia bete ezin badu, presidenteak bete beharreko epe berean jardungo du ordezkoak.

7. Bertaratu ezin delako, gaixo dagoelako edo bestelakoengatik presidenteak aldi batean kargua bete ezin badu, presidenteordeak beteko du.

**35. artikulua-**

Gobernuaren eta Federazioaren ordezkari lanean dagozkion funtzioez gain, presidenteak honako lan hauek egin beharko ditu:

a).- Batzar Orokorra deitze, eta bileretan buru izatea.

b).- Batzar Orokorrak harturiko erabakiak bete eta gauza daitezen bultzatzea.

c).- Bilerak deitu eta gidatzea, eta zuzendaritza batzordearen eguneko gai-zerrenda ezartzea.

por ciento de los miembros de la Asamblea, y sean planteadas al menos con diez días de antelación a la fecha de celebración de la Asamblea.

**Artículo 32.-**

1. La Asamblea General quedará validamente constituida en primera convocatoria cuando concurra la mitad más uno de sus miembros. En segunda convocatoria bastará con la concurrencia de cualquier número de asistentes.

2. No se admitirá delegación de voto en el seno de la Asamblea General.

**Artículo 33.-**

